




2.- Izena emateko prozedura.

Izen emateak **interneten bidez** egin beharko dira, Eskola Kirolaren izena emateko aplikazio informatikoan: www.gipuzkoa.net/deportes. Horretarako, ikastetxe bakoitzak dagoeneko eskuratu duen identifikazioa eta pasahitza erabili beharko dira.



2.1 - Eskola-umeak eta arduradunak ("Kirolariak") alta emateko prozedura

Aplikazio informatikoan izena aurretik inoiz eman ez duten eskola-umeek, "kirolariak" izeneko atalean "kirolarien alta masiboa" laukitxoan, alta eman beharko dute izena. Horretarako, ikasle bakoitzaren lehen eta bigarren abizena, izena, sexua eta jaiotze data idatzi beharko da.

2.2 - Taldeak alta emateko prozedura

Ikastetxeak talde bakoitzeko izen emate bat egin beharko du, eransten den koadroan (2023-24 Igeriketako programazioa) egiten den igerileku, data eta ordutegiaren arabera banaketa jarraituz.

Horretarako, "Taldeak" eta "Berria Gehitu" atalean sartu behar da eta dagokion azpimenuko aukera hautatu:

Ibilbidea: Heziketa hastapeneko programa

Taldearen izena:

Kirola : IGERIKETA

Espezialitatea: Espezialitaterik gabe

Jarduera: IGERIAN IKASTEKO IKASTAROAK

Donostia Kirolak ordaintzen dituen mailak (Lehen hezkuntzako 1. Eta 2. Maila)

Diru laguntzaren kudeatzailea: x Entitate lokal (udala, etab.)

...

Ikastetxeak ordaintzen dituen mailak:

Diru laguntzaren kudeatzailea: x Ikastetxe bera



KATEGORIA: IREKITA

SEXUA: MISTOA

Ikastaro bakoitzeko datu guztiak bete ta gero, gorde beharko da.

2.3 – Kirolariak taldean sartzeko prozedura.

Datu guztiak bete eta gorde ondoren, taldea aukeratu behar da eta parte hartzen dituzte eskola-umeak taldean sartu behar dira.

2.4.- Izenemateko epeak.

Kanpaina honetako ikastaroetan parte hartzeko eskaerak aurkezteko epeari irailaren 21ean emango zaio hasiera, eta bukaera, berriz, urriaren 8an lehenengo ikastaroan parte hartuko dutenentzat eta urriaren 16an gainontzeko parte hartzaileentzat.

2.5.- Izen emateak zuzen ez betetzea.

Aldaketaren bat izanez gero aurkeztutako datuetan edo aukeratutako egunetan, Kiroletako Udal Patronatuari jakinarazi beharko zaio, posta elektronikaren bidez (eukeni_lopez@donostia.eus), ahalik eta lasterren.

3.- Jardueraren kostea.

Kanpaina honek Lehen Hezkuntzako lehen zikloan erabateko diru-laguntza du, beraz parte hartzen duten ikastetxeei ez zaie instalaziorako sarreragatik, ezta klaseak hartzeagatik ere, inongo kuotarik kobratuko.

Ikastetxeek Lehen Hezkuntzako hirugarren eta laugarren ikasmailan kanpaina egin nahi badute, Donostia Kirolak instalazioak dohainik utziz lagunduko die. Kasu honetan, saioak emango dituen pertsonala ikastetxeen ardura izango da eta Gipuzkoako Foru Aldundiak ematen duen diru-laguntza eskatzeko aukera edukiko dute.

Ikastetxeak, jardueraren lekura etortzeko garraioa behar izanez gero, bere gain hartu beharko luke horren kostea.

4.- Heziketa Bereziko Zentroen parte-hartzea.

Aipatutako zentroen ezaugarriak kontuan izanik, Heziketa Bereziko taldeek parte hartu ahal izango dute kanpaina honetan, beren ikasle guztiak adinaren arabera taldeetan sailkatuz.

Izenematea, epeak eta prozedurak, kanpainako orokorrak izango dira, kasu guztietan.

5.- Aseguru orokorra.

Kanpainan parte hartzen duten guztiak, Gipuzkoako Foru Diputazioak kirol jardueraren arriskuak estaltzeko duen aseguru orokorraren babesa izango dute, partaide bakoitzaren osasun aseguruaren kontura egonik gerta litezkeen istripu edo lesioek eragindako mediku laguntzari dagokion gastua.